

ETXEBARRIKO HAPO URBANIZAZIO ORDENANTZAK

1.- XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA	1
1.1.- Xedea	1
1.2.- Aplikazio eremua.....	1
2.- BIDE ETA ESPAZIO PUBLIKOEN DISEINUA	2
2.1.- Irisgarritasun jasangarri eta garraio publikoaren sustapena.....	2
2.2.- Bide eta espazio publikoen segurtasuna.	2
2.2.a.- Irisgarritasuna eta ikuspena.	2
2.2. b.- Bide eta hiri espaloien diseinu eta eraikigarritasun ezaugarriak.....	2
2.2.c.- Segurtasuna.	4
2.3.- Aparkalekuak.	4
2.4.- Ur-bilketa.	4
2.5.- Berdegune, parke, lorategi eta plazen geometria eta malda egokiak.	5
2.5.a.- Berdegune, parke eta lorategiak.	5
2.5.b.- Plaza eta zoladuradun guneak.....	5
2.5.c.- Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten espazio publikoak.....	5
2.6.- Espazio publikoetako instalazioak.	6
3.- AZPIEGITURA SARE ETA HIRI ZERBITZUAK	7
3.1.- Sareen ezaugarri eta dimentsioak.	7
3.2.- Harguneak.....	7
3.3.- Enpresa pribatuek emandako zerbitzuen sareen egoera juridikoa.....	7
3.4.- Espazio publikoen ureztatzea.	8
4.- HERRI-ARGITERI SAREA.	9
4.1.- Bide eta espazio publikoen argiztatze maila.....	9
4.2.- Euskarri eta luminariak.....	9
4.3.- Sarearen ezaugarriak.....	9
5.- LORAZAINTZA ETA ZUHAIZTIAK.....	10
5.1.- Ornamentuzko landaketak.	10
5.2.- Zuhazti handiak.	10
5.3.- Parterreak.....	10
6.- HIRI ALTZARIAK.....	11
6.1.- Hiri-altzari elementuak.	11
6.2.- Hiri-altzarien ezarpenerako ingurumen irizpideak.	11
6.3.- Hiri-altzarien ikerketa eta berrikuntza gauzatzeko irizpideak.....	11

7.- URBANIZAZIOAREN EXEKUZIO, ONARPEN ETA MANTENURAKO BALDINTZAK...	12
7.1.- Urbanizazio lanen exekuzioa eta espazio publikoen erabilera.	12
7.2.- Zuinketa-akta.	12
7.3.- Ikuskapen, obra-onarpen eta bermea.....	12
7.4.- Urbanizazioen mantentze eta kontserbazioa.....	13
7.5.- Mantentze erantzukizuna: zoru publikoaren okupazioa sestra azpitik, erabilera publikoko zortasuna, mankomunitateak,....	13

1.- XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.

1.1.- Xedea.

Ordenantza hauek honakoa dute xedetzat:

1. Genero indarkeria ardatz moduan hartuz, urbanizazioetan segurtasun aspektuak sartzea behe solairutako espazio irekiak, pasabideak, etab. arautuz.
2. Urbanizazioen ezaugarriei buruzko aholkuak ezartzea, batez ere, oinezkoen segurtasuna, bizikleta bidezkoa, bai eta garraio publikoenganakoa ere; argiztapenerako kontsumo energetikoa murrizteko eta euri uraren erabilera ureztatze eta kaleen garbiketarako.
3. Espaloi, parke eta lorategietan zuhaitziak landatzeko gutxieneko baldintzak ezartzea.
4. Urbanizazio lanen exekuzio, onartze eta mantenurako erantzukizuneko gutxieneko baldintzak arautzea.
5. Sare, instalakuntza linea eta hiri-zerbitzuekin lotura duten azpiegituren ezarpenerako aholkuak ematea arlo material zein juridikotik.
6. Urbanizazioaren alderdi teknikoak, aplikagarria den araudi teknikora bideratzea.

1.2.- Aplikazio eremua.

Ordenantza hauetan bildutako arauak ondoren zehazten diren dokumentuetan aplikagarriak izango dira:

- Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 153. artikuluan zehazten diren jarduketa-programen eduki tekniko eta legezkoak.
- Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 194 eta 195. Artikuluetan zehazten diren hirigintza proiektu eta obra publiko arruntetan.

Era berean, aurreko dokumentuetan definitutako lanen exekuzioari ere aplikagarriak izango dira.

Ez da aplikagarria izango urbanizazio lan edo obra publiko arruntetan, helburutzat eraldaketa, erreforma edo urbanizazio konponketa duenean, honako kasuetan:

- Aurretiaz dagoen urbanizazioaren ezaugarri orografiko, egiturazko edo formarengatik, ordenantza hauetan azaldutakoa aplikatzea ezinezkoa bada.
- Erabilgarria den aurrekontu ekonomikoa ikusita, eta beharrezko justifikazioa medio, ordenantza hauen aplikazioa, existitzen den urbanizazioaren eraldaketa, birgaitzea edo konponketan neurritz kanpoko gastua suposatzen duenean.

Ordenantza hauetan adierazitakoa ez da aplikagarria izango aurretik adierazitako kasuetan (1). Gainontzeko urbanizazio obratan aplikagarria izango da.

(1) Urbanizazio elementuak hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan definitzen dira.

2.- BIDE ETA ESPAZIO PUBLIKOEN DISEINUA.

2.1.- Irisgarritasun jasangarri eta garraio publikoaren sustapena.

Hiri bideak diseinatzerakoan, egikaritze-unitatearen zein berarekin harremanetan dauden eremuen oinarrizko ibilbideak hartuko dira kontutan bai eta aurreikusitako zirkulazio fluxuak.

Oinezkoen ibilbide nagusiak biderik eta laburrenetik diseinatuko dira.

Bizikletentzako ibilbideak zonalde eta eraikin publiko nagusienekiko bideak ahalik eta gehien laburtzen marraztuko dira. Posible den neurrian, bideen errailen ondoan kokatuko dira, hauekiko seinaleztapen egoki bidez berezituaz (beraierara sartzeko oztoporik suposatzen ez dutenak).

Ibilgailuen trafikorako bideen diseinua, aurreikusitako fluxuen arabera izango da, bai eta gehienez ezarritako abiadurarekikoa ere. Garraio publikorako bideetan, bere eraginkortasun edo arintasuna murriztuko duen elementurik ez da ezarriko.

2.2.- Bide eta espazio publikoaren segurtasuna.

2.2.a.- Irisgarritasuna eta ikuspena.

Irisgarritasunari dagokionez, 68/2000 Dekretuaren II. Eranskina izango da aplikagarri.

Garraio publikorako igo eta jaitsierak, bai eta bere aparkatzea, espazio seguru eta irisgarrietatik egingo da beti.

Kaleetako oinezkoentzat pasabideak, posible den neurrian, garraio publikoko ibilgailuen gelditze puntua baino arinago ezarriko dira, beti ere, ibilbidearen noranzkoa kontutan izanik.


Oinezkoentzako pasabideen inguruan ikuspena murriztu dezaketen elementuak ezartzea saihestuko da: ibilgailu aparkatuak, edukiontzia, kioskoak, kabinak, etab.

2.2. b.- Bide eta hiri espaloien diseinu eta eraikigarritasun ezaugarriak.

Ibilgailuentzako galtzaden diseinua legedi sektoriala eta arau tekniko aplikagarriak kontutan izanda egingo da.

Garraio publikoko ibilgailuak ibiliko diren bideak, hauetara moldatuak izango dira, eta beraientzat errail eksklusiboak izango dituzte, edo baztertzeko 2,20 m. gutxieneko zabalera guneak eta beharrezko luzera dutenak ibilgailuaren arabera. Honela errailaren zirkulazioa ez da oztopatuko.


Bizikleten bideak, noranzko bikoitzekoak badira, gutxienez 2,00 m. zabalera izango dute. Noranzko bakarrekoak badira, 1,50 m. zabal.



Luzeran kokatutako aparkaleku banda eta espaloian kokatutako bizikleta errail baten artean, 0,50 m-tako distantzia kokatuko da gutxienez biak paraleloak baldin badira.

Luzeran kokatutako aparkaleku bandak parterre edo bidegorrien paralelo kokatuz gero, 1,00 m. zabal duen espazioa irisgarria kokatuko da bien artean, igo jaitsierak errazteko asmoz. Mugikortasun murriztuko pertsonentzako aparkamenduak aurreikusten diren tokietan, distantzia hau 2,00 m-takoa izango da gutxienez.

1.2. atalak definitzen dituen proiektuetan, espaloi eta errailen zabalera justifikatu beharko da, fluxu, azpiegitura elementu, altzari, lorategi eta beste diseinu alorren arabera.



2.2.c.- Segurtasuna.

Espazio publikoen diseinuan, zenbait gune saihestu beharko dira segurtasuna bermatzeko asmoz: eraikinen behe solairutako espazio irekiak, lur azpiko pasaguneak eta angeluan gelditzen diren espazio estuak.

Parke eta lorategietan, heskaiaren altuera mugatuko da, ikuskapena ez mugatzeko eta horrela, gune arriskutsuak ekiditeko.

Haur gunetan kokatzen diren jolasak, tamaina egokikoak izango dira eta erabilera segurtasuna bermatua izango dute.

2.3.- Aparkalekuak.

Bide eta espazio publikoek, aplikagarriak diren hirigintza arauk ezarritako gutxieneko aparkamendu zenbakia izan beharko dute dotazio bezala.

Gutzizko aparkalekuetatik %80 autoentzat egokiak izan beharko dute eta honako neurriak izango dituzte:

- Luzeran kokatutako aparkalekuak, gutxienez 2,20 m-tako zabaleraz. Aparkaleku kopurua zenbatzeko irizpidea, 4,50 m. bakoitzeko, aparkaleku bat kontsideratuko da.
- Bateriako aparkalekuak: 2,30 x 4,80 m.
- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkalekuak, kopuru eta neurrietan, aplikagarria den araudiaren arabera.

Aparkamendu guztien %20 motozikletentzat erabilgarriak izango dira. Gutxieneko neurriak: 1,30 x 2,20 m.

Errepide sareari lotutako aparkamenduak, argindar hornidurari era erraz batean lotzeko aukeraz diseinatuko dira baterien birkarga ezartzea erraztuz.

Bide edo espazio publikoen ondoan, gutxienez, ibilgailuen bost aparkamendu bakoitzeko, bizikletak lotzeko plaza bat ezarriko da, hamar plazetako multzoetan.

2.4.- Ur-bilketa.

Ur-bilketarako sarea, espazio publikoetan usain txarrak ekiditeko diseinatuko da. Erabiliko den irizpidea emari etorrerari gutxieneko erresistentzia izatea izango da, bere fluxu eta drainatzea erraztuz, araudi sektorialak ezartzen dituen baldintzetan.

Bilketa elementuak, kalkulu eta diseinua, aplikagarria den araudiarekin bat egingo dira.

Zoladuradun zoruetan ur pilaketak ekidingo dira, eta edozein kasutan ere, urbanizazioak honako maldak izan beharko ditu:

- Espalioen zeharkako gutxieneko malda: %1.
- Galtzaden zeharkako gutxieneko malda: %1,5.
- Harmailadien gutxieneko malda: %0,5.

2.5.- Berdegune, parke, lorategi eta plazen geometria eta malda egokiak.

2.5.a.- Berdegune, parke eta lorategiak.

Planeamenduan berdegune diren espazioek, aldi berean honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Gutxieneko azalera jarraitua 1.000 m²-ko berdina edo handiagoa.
- Zuhaitzek ematen duten gerizpea kenduta, ekinozioetatik hurbilago dagoen eguneko 12.00tan (bertako eguzki ordua) eguzkimendua, azalera minimoaren %70koa izango da.
- Gutxieneko azaleraren batz besteko malda, gehienezko %10, eta gainontzeko azaleran, %30.
- Landarediaren hazkuntzarako zorua izatea.

Bere diseinuan, ordenantza hauen 2.2.c atalean ezarritako segurtasun baldintzak kontutan hartuko dira. Gainera leku batetik bestera igarotzeko oinezkoen ibilbideen inguruan zuhaitza multzo itxiak ezartzea ekidingo da.

2.5.b.- Plaza eta zoladuradun guneak.

Aurreko ataleko baldintzak betetzen ez dituzten gune berdeak, espazio edo gune libreak izanik, aldi berean honako baldintzak bete beharko dituzte:

- 1.000 m²-ko gutxieneko azalera jarraitua.
- Zuhaitzek ematen duten gerizpea kenduta, ekinozioetatik hurbilago dagoen eguneko 12.00tan (bertako eguzki ordua) eguzkimendua, azaleraren minimoa %50koa izango da.
- Udako solstiziotik hurbilago dagoen eguneko 12.00-tan (bertako eguzki ordua) Itzaldun guneak izango dituzte, azaleraren minimoa %25ko gune batean eta zuhaitza, itzaltegi edo beste bideez lortua izango da.
- 68/2000 Dekretuaren araberrako irristagarritasun baldintzak eta zoladura egokia izango dute.

2.5.c.- Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten espazio publikoak.

Plangintzaren baldintzagatik (2), 2.5.a eta 2.5.b atalek aipatzen duten espazioak 1.000 m² baino txikiagoak badira, aldameneko eremuen espazio publikoekin mugakideak izango direnekin diseinatuko dira, eta planeamendu helburu arrazoiagatik edo teknikoki posiblea ez balitz izango, erreferentzia-espazioei buruzko eremuan ordenatutako hornidura publikorako azalera guztia, esparru jarraituan sartuta egongo da.

Plangintzaren baldintzagatik 2.5.a eta 2.5.b atalean aipatzen diren espazioek gainontzeko baldintza geometriko, eguzkimendu, itzaleko edo batz besteko malden baldintzak bete ezin badute, antolatzen duen planak gune edo espazio libretarako eskatzen dituen gutxieneko azalera honako proportzio hauetan gehituko dira:

- Gainontzeko baldintza geometrikoak betetzen ez badira: 25%
- Eguzkimendu edota itzaleko baldintzak betetzen ez badira: 25%
- Batz besteko maldaren baldintza betetzen ez bada: 50%

2.6.- Espazio publikoetako instalazioak.

Espazio publikoak diseinatzerakoan, hauek komun publikoek hornitzeko aukera kontutan izango da, horretarako, leku egokia erreserbatuz eta ur hornidura eta ur beltzen jasotzea kontutan izanez.

Ekitaldi publikoetarako erabiliko ahalko diren espazioek gainera, argindar hornidurara lotura erraza izan beharko dute beharrezko ekipamenduak ezartzeko.

3.- AZPIEGITURA SARE ETA HIRI ZERBITZUAK.

3.1.- Sareen ezaugarri eta dimentsioak.

Azpiegitura sareak eta hiri zerbitzuak lur-azpikoak izango dira hiri-lur, lurzoru urbanizagarrian urbanizatzen den heinean, eta lurzoru urbaniza ezinean kokatzen diren ekipamendu eta espazio libreen urbanizaziotan.

Saneamendu sarea abiadura egokirako diseinatuko da. Honela, higadura, hodiedan jalkin eta sedimentuak ekidinez eta saneamendua burutu den zonaldetan uren igoera ekidinez, gutxienez hamar urteko epean.

Saneamendu eta ur hornidura sareak, aplikagarria den araudi teknikoaren arabera dimentsionatuko dira.

Edateko ur-horniduraren sareak, eraikinen oinarritzko eskaera hornitzeko emari eta presio nahikoa izateaz gain, ureztapena eta suteen aurkako hornidura ere izango ditu kontutan.

Urbanizazio eta obra proiektutan, diseinatutako sareen hornidura, kalkulu eta dimentsioak izango dituzte.

3.2.- Harguneak.

Hiri-finka edo eraikin baten sareetarako hartuneak, honako elementuak izango dituzte:

- Hiri sarearekiko lotura. Bere mantenua udalari dagokio.
- Finka edo eraikinarekiko lotura. Bere mantenua finka edo eraikineko jabeari dagokio.
- Bien arteko eroanbidea.

Lotura puntuen arteko eroanbidearen mantenuaren erantzukizuna, udalarena izango da eroanbidea lurzoru publikotik igarotzen den kasuetan eta hiri-finka edo eraikinaren jabeena izango da lurzoru pribatutik igarotzen den kasuetan.

Oinarritutako diseinu arrazoiengatik, hiri-finka edo eraikinaren eroanbide pribatuak jarri ahal izango dira jabego publikoko lurzoruan, esate-baterako euri-uren zorrotan lotura edo saneamendurako, ea.. Kasu hauetan, mantentze-lanak eroanbideen jabegoei dagozkie, mantentzeko baldintzak urbanizatzeko jarduera programetan edota hitzarmenetan finkatuko dira eta horrelakorik egon ezean, Udalak finkatzen duen eran.

3.3.- Enpresa pribatuek emandako zerbitzuen sareen egoera juridikoa.

Enpresa pribatuek emandako zerbitzuen diseinu, dotazio eta kalkuluak, beraien arauen arabekoak izango dira. Ordenantza hauetako 1.2 atalak zehazten dituen programa eta proiektuen erredakzio prozesuan, proiektua idazterakoan eta obra hartzerakoan informatuko dute.

Enpresa hornitzaileen esku geldituko da zerbitzu sareen mantenua, bai eta hartuneena ere 3.2. atalean esandako baldintzetan.

Udalak, lurzoru publikoa erabiltzearen ondorioz kanon bat proposa diezaike zerbitzua ematen duten enpresei.

Kanon hau eraikinen urbanizazio pribatuko berezko eroanbide guztietara zabaldu ahal izango da, baita zoru publikoan exekutatu diren titulartasun pribatuko partzeletara ere.

3.4.- Espazio publikoen ureztatzea.

Euri ura erabilitako da berdegune, parterre, parke, lorategi eta plazak ureztatzeko, beti ere, hartze eta bilketa gauzatzeko baldintzak betetzen dituztenean. Instalazio honen ez ezartzea, urbanizazio edo obra proiektuan teknikoki azaldu beharko da.

4.- HERRI-ARGITERI SAREA.

4.1.- Bide eta espazio publikoen argiztatze maila.

Bide eta espazio publikoek argiztatze publikoa izango dute, aplikagarria den araudi sektorialak ezarritako baldintzekin.

Argiztapen maila kanpo argiztapen publikoko energia efizientzia arautzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 14ko RD 1890/2008, edo bera aldatzen duen xedapenak ezartzen dituen maila minimoetara murriztuko da.

Lur azpiko zehar guneeetan, segurtasun gutxiko espazioetan edo iluminazio maila handiago behar den edozein kasutan, modu gehigarrian, presentzia detekzio bidezko gailuak ezarriko dira.

4.2.- Euskarri eta luminariak.

Euskarri eta luminariak modu egokian ezarriko dira luminariaren altuera eta argiztatu beharreko espazioaren zabalera kontsideratuz.

Luminariak energia kontsumo baxukoak eta eraginkortasun altukoak izango dira. Beraien argi-sorta argiztatu beharreko gainazalera zuzenduta izango dute zeruranzko kutsadura luminikoa ekidinez.

4.3.- Sarearen ezaugarriak.

Argiztatze sarea indarrean dauden arau teknikoen arabera diseinatuko da, ahalik eta gastu energetiko baxuena helburutzat izanik.

5.- LORAZAINTZA ETA ZUHAIZTIAK.

5.1.- Ornamentuzko landaketak.

Ordenantza hauen arabera, ornamentuzko landaketak hazkuntza mugatua dutenak izango dira, bai mantenuagatik bai eta inausketa zehatzengatik.

Egingo diren ornamentuzko landaketetan, bai zuhaitza bai eta heskaiekin, ekidin egingo dira pertsona bat bertan gorderik izateko bezalako espazioak.

Ahalik eta mantenu eta ureztatze beharrian gutxien duten espezieak aukeratuko dira.

5.2.- Zuhaitzi handiak.

Ordenantza hauen arabera, zuhaitzi handiak izango dira, mantenu behar ez dutenak ez delako beharrezkoa bere hazkuntza mugatzea eraikinen gertutasuna dela edo beste arrazoirengatik dela eta.

Zuhaitzi handiak landatzeko, kontutan izango dira landaketa sasoiak, bere hazkuntza, beraien arteko banaketa distantzia, zuhaitz txorkoen tamaina egokia, zuhaitzen hazkuntza oztopatu dezaketen inguruko eraikinetan hegalki baden eta espaloietan kokatzekotan, hauen zabalera.

Nagusiki bertako espezieak aukeratuko dira eta kontutan izango da beraien fruitu edo haziek hiri-altzari, zoru eta pertsona eta ibilgailuetan kalterik egin badezakete.

5.3.- Parterreak.

Bere mantenua bermatzeko asmoz, parterreek 100m²ko gutxieneko azalera izango dute eta hiru metro diametroko zirkulua marraztu ahalko da bertan.

6.- HIRI ALTZARIAK.

6.1.- Hiri-altzari elementuak.

Hiri-altzariak, 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean, 4.1. artikuluan definitutakoak izango dira. Bere elementuak ere araudi berdinean zehaztutakoak izango dira.

Bere ezarpen eta ezaugarritan, irisgarritasun araudiak dioenez gain, hurrengo atalak ere kontutan izango dira.

6.2.- Hiri-altzarien ezarpenerako ingurumen irizpideak.

Hiri-altzarien ezarpenean kontutan izango dira iraunkortasuna, beraien fabrikazioan material birziklatuak erabiltzea, erabilitako materialak lotzeko gutxieneko energia gastua izatea eta beraien bizitza bukatzean birziklagarriak izatea.

Kontutan izango da erabiliko diren materialak inguru geografikotik ateratakoak izatea garraio gastuak ekiditeko.

Ez dira pertsona zein ingurumenarentzat material edo akabera kutsagarriak erabiliko.

6.3.- Hiri-altzarien ikerketa eta berrikuntza gauzatzeko irizpideak.

Urbanizazio proiektuak eta obra osagarrien proiektuak, hiri-altzarien ikerketa eta berrikuntzaren irizpideak kontutan hartuko dituzte hiri altzariak aukeratzeko unean, Honako elementu hauen dotazioa esaterako:

- Haur joko didaktikoak (uraren zikloarekin zerikusia dutenak, arazketa,...).
- Pertsona helduentzat ariketa elementuak.
- Txakur zaborrentzat ontziak.
- Eskala txikiko konposgailuak.
- Etab.

7.- URBANIZAZIOAREN EXEKUZIO, ONARPEN ETA MANTENURAKO BALDINTZAK.

7.1.- Urbanizazio lanen exekuzioa eta espazio publikoen erabilera.

Aldi baterako lanak, eraikuntza obrak bezala, pribatu ala publikoak izanik, ezin izango dira 22 orduak eta hurrengo eguneko 7 orduak bitartean egin, lan hauek besteen jabetza barneko hondoko mailan soinu gehikuntzak sortzen baldin badituzte. Egunaren gainontzeko orduetan, erabilitako ekipoek ezingo dute 80 db(A) maila igo 1,5 m-tako distantziara.

Gauez lan egiteko galarazpen honetatik salbu gelditzen dira, urgentziazko lanak bai beharrezkoak izateagatik bai arriskutsuak direlako. Baita beraien ezaugarriengatik egunez egin ezin litezkeenak ere. Gauezko lanak baimenduak izan beharko dira zarata mugak zeintzuk izango diren zehaztuz.

Gaueko 22 orduetatik, goizeko 7etara, salgaien zamalanak, eta kutxa, edukiontzi, eraikuntza material edo antzekoen manipulazioa galarazita gelditzen dira zabor bilketa, kaleen garbiketa eta jakien banatzeak ez badira.

7.2.- Zuinketa-akta.

Urbanizazio lanak hasi ahal izateko, zuinketa-akta egin beharko da lehenik.

Obraren zuinketa tokian bertan egingo da udal teknikari eta obra zuzendariaren artean, eta bertan beharrezko akta idatziko da.

Gutxienez, akta horrek honako datuak jasoko ditu:

- Lanen hasierako data.
- Lanen perimetroa, azalera, lerrokadurak, sestrak eta lanen bidegarritasun fisikoak bermatzen duten beste datuak.
- Parte hartzen duten teknikarien izen eta titulazioak.

7.3.- Ikuskapen, obra-onarpen eta bermea.

Urbanizazio lanak behar besteko alditan ikuskatuak izan ahalko dira udal teknikariengatik, honakoa jasota geldituko delarik:

- Zuinketaren egiaztapena.
- Edateko ur horniduraren presioa eta saneamenduaren iragazgaitza egiaztatze frogak
- Bide zoruaren geruza egiaztapena.
- Argiztatze publikoaren instalakuntza.
- Ornamentu eta lorategi lanen gauzatzea.

Urbanizazio lanen obra-onarpena 2/2006 legearen 198. artikulua arabera gauzatuko da.

Behin urbanizazio lanen obra-onarpena eginik, lanen berme epea zein exekutatuaren erantzukizuna, indarrean dauden kontratazio arauak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko da.

7.4.- Urbanizazioen mantentze eta kontserbazioa.

Udalari dagokio urbanizazioen mantenua izaera publikoa duten kasu guztietan, honako salbuespenak kontutan izanik:

- Hiri zerbitzuak ematen dituzten enpresek beraien azpiegitura orokorrak mantendu beharko dituzte.
- Jabe pribatuei 3.2. atalak ezartzen dituen baldintzen arabera dauden zerbitzurako eroanbide guztiak.
- Entitate laguntzaileei, hitzarmen bidez adostutako urbanizazio edo hauen atalak.

7.5.- Mantentze erantzukizuna: zoru publikoaren okupazioa sestra azpitik, erabilera publikoko zortasuna, mankomunitateak,...

Erabilera publikoko zortasuna duten gunetan edo sestra azpitik erabilera pribatua duten zoru publikoetan, udalari dagokio zerbitzuen kostuak bai eta argiteria publikoaren mantentzea, azalerako akaberak, lotze elementuak eta jauste-arriskuaren aurkako neurriak.

Erabilera publikoko zortasuna duten gunetan edo sestra azpitik erabilera pribatua duten zoru publikoetan, sestra azpiko jabe edo erabiltzaileei dagokie iragazgaitasuna (babes eta isolamendu termikoa barne), malden sortzea eta jasan egiten duen egitura mantentzea.